

USTELKERIAREN AURKAKO POLITIKA

1. Politikaren laburpena

Politika honen helburua da Aretxabaletako (Gipuzkoa) "Mondragon Assembly" Koop. E.ko (hemendik aurrera, MA) funtzioak eta baliabideak langileen, zuzendarien edo bertako administrazio organoetako kideen beraien onurarako, edo MAren edo MA Taldearen onurarako erabiltzea eta horiekin lotutako iruzurrezko ekintzak prebenitzeko, detektatzeko eta zigortzeko beharrezko neurriak finkatzea.

2. Irismena

Politika hau bazkide langile guztientzat eta MArentzat edo haren izenean kontratuarekin lan egiten duten pertsona guztientzat da aplikagarria. MAK edo MAKo edozeinek egindako ekintza indibidual ez edota taldekoez ari da, bai eta MA Taldeko beste enpresa bat inplikatuta daudeneko ekintzez ere.

Politika honek MAK eta bertako langileek (bazkideek zein besteren konturako langileek) maila guztietan ezarritako jardura, prozesu eta harreman guztiak bilduko ditu. Horiek kontratu, politika, prozedura edo antzeko bitartekoen bidez modu formalean idatzita egon beharko dute, edo ohiko jardunbidearen edo ohituraren bidez aplikagarriak izan beharko dute.

3. Portaerako arau orokorrak

MAk eta hirugarren batek (pertsona, erakundea, instituzioa,...) elkarrekin egin eta ondorio ekonomikoak (opariak, bidaiak ordaintzea, hotelak ordaintzea, komisioak...) dituen edozein ekintza lan harremanari estuki eta modu garbian lotuta egon behar da (negoiazioa, proiektuen jarraipenak, azokak...) eta lankidetzat eta kortesia moduan lan harreman hori errazteko izango da, eta inoiz ere ez ekintzaren testuinguru kulturean eta legalean desagokitzak jo daitezkeen beste asmo batzuekin.

Debekatuta dago MAKo edozein langilek edo haren izenean edo hura ordezkatzuz lan egiten duen edonork edo erakunderen batek zuzenean edo zeharka hirugarren batzuei (**pertsona fisikoak edo erakunde pribatuak, Estatukoak edo atzerrikoak** izanda) modu bidegabean diruz edo beste edozein ondarearen bidez egindako ordainketak eskaintzea, egitea edo agintzea edozein negozio, mesede edo interes mota lortzeko edo atxikitzeko asmoz. Debeku horretan sartuta dago MARI lehentasunezko baldintzekin mesede egiteko edo MARI zintzoa ez den abantaila eman diezaiokeen isilpeko informazio pribatua emateko edozein erabaki.

MAko langileek eta haren izenean edo hura ordezkatzuz lan egiten duen edozein pertsonak edo erakundek ezingo diete zuzenean edo zeharka inolako zenbateko edo ondasun baliotsuren ordainketa eskaini, egin, agindu edo baimendu **partikularrei, gobernuko funtzionarioei, alderdi politikoei, alderdi politiko bateko ordezkariak, kideei edo hautagaiei edo kargudun politikoei** MARI negozio, mesede, interes edo zintzoa ez den abantaila emateko, lortzeko edo mantentzeko asmoz, edo honako helburu hauetakoren bat lortzeko:

- Hartzailearen ekintza edo erabakiren batean eragina izatea (haren karguarekin lotuta).
- Hartzailearen legezko betebeharrak haustea eragin duen eraren batean jardutera edo jarduteari uztea eragitea hartzaileari.
- Hartzaileak tokiko, autonomia mailako, Estatuko, Europako, gobernuko edo enpresa publiko bateko administrazioan duen influentzia erabiltzera eramatea, haiek hartutako edozein ekintzatan edo erabakitan eragina izateko edo hori aldarazteko asmoz.

USTELKERIAREN AURKAKO POLITIKA**4. Ustelkeria ekiditeko kontrol mekanismoak**

- MAren izenean eta haren kontura egindako gastu guztiak fakturen edo ordainagirien bidez behar bezala dokumentatuta egon behar dute. Gastu horiek kontularitza sailak berrikusi beharko ditu gastu politikaren arabeko arrazoigarritasuna eta dokumentazio egokia egiaztatzeko.
- Ordainketak MAri faktura igorri ostean egingo dira. Araua bereziki aplikagarria izango da bidaiako, egonaldiko, otorduetako, ordezkartzako eta abarretako gastuen kasuan. Salbuespen gisa, eta ordainketarako modu pertsonalizatuak erabiltzea eskatzen duten ezohiko egoeren aurrean, ordainketak faktura eta ordainagiri bidez justifikatuko dira modu zorrotzean.
- Gastu guztiak MAren kontularitzan erregistratuta geratuko dira aplikagarria den araudiak eskatzen duen xehetasun mailarekin. Era berean, legez ezarritako epean gorde beharko da haren euskarri den dokumentazioa.
- Ez da administrazio gestioak arintzeko edo baimenak, lizentziak edo antzekoak lortzeko ordainketarik egingo.
- Egindako edozein **dohaintza** Kontseilu Errektoreak (gobernu organoa) baimendu beharko du, baliabideen administrazio egokia bermatuko duen antolaketa egitura duen prestigio handiko erakundeen alde egin beharko da eta kontularitzako liburu eta erregistroetan behar bezala islatuta utzi beharko da. Ez dira ordainketa bidegabe bat edo eroskeria bat estaltzeko erabiliko. MAk ez du alderdi politikoaren edo ordezkarien aldeko dohaintzarik egingo.
- Edozein **laguntza** Kontseilu Errektoreak (gobernu organoa) onartu beharko du eta behar bezala dokumentatuta geratu behar du. Babestutako jarduerak MAren erantzukizun sozialeko printzipioekiko koherenteak izan behar dute.

Politika hau eta ustelkeriaren aurkako legeak betetzeko, MAk bere jardueraren liburu, erregistro eta kontuak erabateko gardentasun erregimenean mantendu eta "Jokabide, erantzukizun sozialeko eta complianceko batzordea"ren eta kanpoko auditoreen azterketaren mende izango ditu.

Erabat debekatuta dago zentro korporatiboaren baitan halako jardunbideak gertatu izanaren berri fede onez MAko arduradunei edo agintariei ematen dien edonoren aurka errepresaliak hartzea.

Politika ez betetzea

Politika horrekin lotutako edozein gorabeheraren edo kontsultaren berri zuzenean eman beharko zaio "jokabide, erantzukizun sozialeko eta complianceko batzordeko" edozein kideri edo posta helbide honen bidez: "gestionetica@mondragon-assembly.com"